



Bertsoa Sutan, Chillida Lekun

Urriaren 17an izango da sukaldea eta bertsoa lotuko dituen saioa. Bertsozale Elkartek bertso plaza bultzatzeko egingo duen ekarpenaren parte da hitzordua.

Osasun neurriak hartuta, kultura eta, honenbestez, bertso plaza segurua delakoan gaude; horregatik, txapelketako edota beste mota bateko saioak egiteko baldintzak egon ez arren, asko dira plazan egin daitezkeen emanaldiak. Eta horretan ari gara Bertsozale Elkartetik.

Aurreko hilabeteetan egin bezala, datozenetan ere bertso plazaren aldeko apustua egingo dugu, tokian tokiko antolatzaileak antolatzera animatu ez ezik, elkartek berak ere saioak antolatuz. Horietako bat da Chillida Lekun egingo dugun saioa.

Urriaren 17an, larunbatez, jarriko dugu Bertsoa Sutan; 17:00etan izango da, eta bertsoa eta sukaldea izango ditu protagonista. Janariaren eltzeta egosten ariko dira Aitzol Zugasti eta Maialen Cano sukaldariak; eta hitzenari eragiten, Andoni Egaña eta Oihana Iguaran bertsolariak. Bi plater hauen arteko oreka ematen, Maite Berriozabal ariko da gai jartzen.

Sukaldariak gastronomiari lotutako prozesu ezberdinen azalpenak emango ditu, eta bertsolariak sukaldaritzari

lotutako prozesu hauek bertsogintzara ekartzen saiatuko dira, gai jartzaileak lagunduta. Gainera, parte hartzaileek sukaldarien prozesua streaming bitartez ikusi ahal izango dute, mugikorrek erabilita.

Zaleei pintxo bat emango zaie saioaren hasieran, sukaldariak gidatuta dastatu ahal izateko. Bestalde, saioaren ondotik afaltzen geratzeko aukera ere izango da: Chillida Lekuko Lurra Café jatetxeak egun honetarako bereziki diseinatutako afari bat eskainiko du jende kopuru mugatu batentzat.

Saiorako sarrerak zein afarikoak www.museochillidaleku.com atarrian eskuratu daitezke, 15 euroren eta 40 euroren truke, hurrenez hurren.

Eta izango dira gehiago

Bertsozale Elkartek, Covid-19ak plazan izan duen eraginaren aurrean plaza biziberritzeko antolatutako egitasmoen baitan kokatutako saioa da Chillida Lekuko, eta datozen asteetan ezagutzera emango ditugu hitzordua gehiago. Adi bertso plazari!



NEREA IBARZABAL SALEGI
Ondarroa, 2020-VIII-29

Gaia: 90 urteko emakumea zara eta itsasoa da zure konpainia bakarra.

Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Nire garaian egindakoa nahiko oihal nahiko sare urtetan sendo sartua nago eta osasunez xuabe ta itsasoa beti hain zabal mugarik gabe goi ta behe goiz ta iluntzez leiho ertzean hortxe zauzkat parez pare ta nik kresala neure azalean zabaldua alde alde ni zahartuz eta aldatuz noa ta zu berdin-berdin zaude.

Eta gauetan sarri entzuten dut zure orroaren hotsa eta neguan haitz izkinetan masailen parera hotza Ondarru eta zure historia ez delako izan motza garai batean bete zenigun bai poltsikoa bai poltsa ta marinela itotakoan herritarren min zorrotza ze itsasoak bi gauzak ditu: bizitza ta heriotza.

Eta sarritan kantatzen dizut nik leiho aldamenen ta erantzuna ere entzuten dut nire bihotz barrenean nolako poza hartu ohi dudan zu harrotzen zarenean eta malkoak irteten zaizkit bare-bare zaudenean. Nire historia amaituko da laster zuzen-zuzenean eta olatu bihurtu nahi dut hauts bihurtzen naizenean.



Kultur ekitaldiak denon osasuna bermatzu egin daitezkeela ikusi dugu azken hilabeteetan. / XDZ

Aurrera doa Xilaba

Laster hasiko dira final laurdenak, eta azaroan sartuko da txapelketa azken txanpara. Aitzitik, atzeratu egingo dira Bizkaikoa eta Nafarroakoa. Izango da bestela ere bertso plazan elkartzeko aukera.

Irailean hasi eta saioz saio, aurrera doa Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsulari Txapelketa. Hiru saio jokatu dira dagoeneko, eta aste honetan jokatu da azken final-zortzirena, larunbatean, Larzabalen. Horrela, final laurdenetako fasean sartuko da datorren astean; urriaren 17an, 24an eta 31n jokatu dira final laurdenak Bokalen, Sohütan eta Izturitzen, hurrenez hurren. Finalurrekoak azaroaren 7an eta 11n izango dira Izpuran eta Bardozen, eta, azkenik, finala azaroaren 24an jokatu da, Donibane Lohizuneko Jai Alai Ezker paretan.

Saioetako sarrerak lekuan bertan erosten ahal dira. Finaleko sarrerak, ordea, salmenta puntu batzuetan eta Internet bidez ere eskuragarri daude, www.bertsosarrerak.eus atarian.

Antolakuntzak zaleei gogorazi nahi die, Covid-19a dela eta, maskarekin joan behar dela saioetara eta usaian baino goizago.

Bizkaikoa eta Nafarroakoa, atzeratuta

Tokian tokiko ezaugarriak eta berezitasunak aztertuta, ordea, Bizkaiko eta Nafarroako txapelketak atzeratzea erabaki dugu.

Bizkaiko Txapelketa 2020ko udazkenean zen jokatzekoa eta, Nafarroakoa, 2021eko urtarrila eta martxoa artean. Kasu bietan, pandemiaren bilakaeraren arabera erabakiko dira data berriak.

Zaila da egoera berezi honetan txapelketak eskatzen duen aukera berdintasuna bermatzea, besteak beste, hamaika egoera sor daitezkeelako: bertsolariak konfinatu behar izatea eta ondorioz txapelketan parte hartzeko aukera galtzea; saiotik saiora epaimahai bera bermatzeko zailtasunak izatea; saio batetik besterako aldaketak saioaren beraren aforo eta ezaugarrietan; eta aurreikus ez daitezkeen beste hainbat.

Hala eta guztiz ere, eta ale honen azaleko albistean aurreratu bezala, bestelako plazak antolatu daitezkeela berretsi nahi dugu, eta bertso plazak sustatuko ditugula, ekimenak antolatuta.

Laster izango duzue horien berri. Osasuna bermatu eta bertso saioak antolatzea ez baitira bi gauza kontrajarri.



Aste honetan amaituko dira Xilabako final zortzirenak. //XDZ

Urriaren 10ean eta 17an, taldekako finalak

Martxoan jokatzeakoak ziren Arabako eta Nafarroako taldekakoak, baina pandemiaren eraginez urriaren emango zaie amaiera; sarrerak eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Urtarrilean abiatu zen Arabako Kuadrilla Arteko Txapelketa eta otsailean, osteran, Nafarroako Bardoak. Ez dira ohiko txapelketak, taldeka jokatzen dira, eta bertsoan egiteaz gain, taldea gaiak jartzeaz, epaitzeaz, antolatzeaz eta behar diren lanak egiteaz arduratzen dira.

Finalurrekoen erdian eten behar izan ziren bi txapelketak, pandemiaren eraginez, eta udazkenean berrartu ditugu.

Arabaren urriaren 10ean jokatu da finala, Amurrion. Aramaioko *Konde basoko iluek* eta *Izenbakuek* taldeak eta Gasteizko *Sumendiola bete poto* taldeek hartuko dute parte. 12:00etan hasiko da eguneko egitaraua 14 eta 18 urte arteko

gaztetxoaren Arabako Eskolarteko finalarekin, eta 17:00etan izango da 2020ko Arabako Bertso Kuadrilla Arteko finala.

Urriaren 17an, Bardeen finala

Nafarroan, Lizarrako Ikastolan egingo da Bardeen finala urriaren 17an, larunbatean, 17:00etan. Finalean Leitzako *Atekaberts komeni* taldea, Malerrekako *Bertsonautak* eta Berako *Lamixene* taldeak arituko dira. Segurtasun eta osasun prebentziorako neurri guztiak bermatuta egingo da finala.

Final bietarako sarrerak eskuragarri daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Ostegunero elkartuko dira **unibertsitateko ikasleak** Ahostegunak ekimenean

Urriaren 29an hasi eta azaroaren 26ra arte ahozko euskal kulturaz gozatzeko lan saioak eskainiko dira Donostian.

Bereziak izan ohi dira ostegunak unibertsitatean, eta azarokoak bereziago bihurtuko ditu Ahostegunak ekimenak. Unibertsitate inguruan dabilzan gazteentzako tailerrak dira, ahozko euskal kulturaz gozatzeko. Helburua euskarazko ahozko sorkuntzan ari diren Euskal Herriko gazteak elkartzea da, harreman sareak egiteko eta elkarrekin adierazpide ezberdinak esperimendatzeko. Saioak UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Ahozko Lantegiak antolatzen ditugu, Euskaltzaindiaren laguntzarekin batera.

Donostian izango dira saioak, UPV/EHUko Gipuzkoako campusaren ondoan dagoen Euskaltzaindiaren egoitzan. Urriaren 29an izango da lehenengoa, eta hurrengo lau ostegunetan elkartuko dira, azarokoetan. Guztiak izango dira 16:00etatik 19:00etara.

Aurtengoan ere literatura, antzerkia, bertsolaritza eta kantagintza izango dituzte mami ekimena osatzen duten saioek. Egun bakoitzeko, kultur sorkuntza bat landuko da, eta diziplina horretan aritu eta aditu den lagun batek edo batzuek hartuko dute parte. Azken egunean, aurretik egondako gonbidatu guztiekin mahai-ingurua egingo da.

Saioak unibertsitateko ikasleek eskurago izango dituzten arren, atek irekita dituzte interesa duten 18 eta 22 urte bitarteko gazteek.

Datorren astean irekiko da izen-ematea www.mintzola.eus atarian.



18 eta 22 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago Ahostegunak ekimena.//XZD

Gradu amaierako lanentzako saria **banatuko da** aurten ere

Urriaren 16an amaituko da sarira aurkezteko epea; azaroaren 26an banatuko da saria.

UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Ahozko Lantegiak bigarren bez egin dugu Gradu Amaierako Lanentzako sari deialdia. Euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa bultzatu nahi da; honenbestez, antzerkigintza, kantagintza, bertsolaritza, kontalaritza, bikoizketa edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat ikertzen duten lanak hartzen dira aintzat.

Lanak 2018-2019 edota 2019-2020 ikasturtean defendatutakoak, aurkeztutakoak, behar dute izan. Ikerlan

saridunak 500 euro eskuratuko ditu. Urriaren 16an amaituko da lanak bidaltzeko epea.

Sari banaketa, azaroaren 26an

Laboa Katedrak eta Mintzolak ahozkotasanaren inguruan egin diren edo egiten ari diren ikerketak ezagutzeko saio bat antolatu ohi dugu, eta azaroaren 26an izango da aurtengoa. Saio horretan ezagutuko dugu aurtengo irabazlea, eta bere lana zeintzuk diren.



Puntua jarrita

JOSU TXOPERENA IRIBARREN

Bertsolagunei ematen diezun garrantzia bera ematea hagitz zaila da baina niretzat ere bertsolagunak ezinbertzekoak dira. Zuk adierazi duzun doinu, errima eta neurrien txokoa, nire ustez bertsolagunik gabe uler ezin daitekeen gauza da. Ni ere zu bezala bertsokideek askoz erosoago sentiarazi naute bertso-eskolan, oholtza gainean edo egunerokoan, eta zati handi batean ondoan izan ditudan horienatik jarraitzen dut gaur egun bertsotan.

Jarritako "puntua" erantzuten hasi aurretik gogoeta bat abiatu da nire barrenean. Bertsoa lagunik gabe posiblea al da? Bertsoa zer da? Indibiduala? Kolektiboa? Eta gehienetan ez bezala galderak erantzuna aurkitu diot. Niretzat bertsoa indibiduala den hein berean da kolektiboa eta alde bat ezin da bertzea gabe ulertu.

Puntu honetan ohartu naiz zer garrantzia duten bertsoa talde moduan biziartzaren diguten ekimen eta egiturek (bertso topaketak, bertso-eskolak...). Haiek sortzen duten komunitatea edo mundua gabe bertsoa ez litzateke gaur egun dena izanen. Nik behintzat horrelako tokietan egin ditut gaur ditudan "bertso lagunak" eta ez dut uste bertso-eskola eta Bertso Udaleku/topaketarik gabe hauen erdiak egingo nituzkeenik.

Nire azken aurreko paragrafo hau bertso topaketak aipatzeko erabili nahi nuke. Ttikitatik Bidarrain, Baigorri, Zugarramurdi eta beste hamaka txokotan elkartu izan gara Ipar Euskal Herriko bertso-ekoletako haurrak urtean asteburu batez. Niretzat hagitz bereziak diren momentuak izan dira bertan ezagutu baititut nire lehen "bertsolagunak" eta espero dut nire gisan beste anitzek nire esperientzia berdintsuak igaroko dituztela.

Nire puntua bertso topaketa batzuetan ezagutu nuen Oier Urreiztrentzat izango da. Beraz, hor doa: Zuretzat, Oier, zer da bertso-eskola?

Koplak

Euskal Herriko Eskolartekoa, azaroaren 14an

Pandemiaren ondorioz etenda egon badira ere, martxan dira berriro ere herrialdeetako eskolarteko txapelketak. Bukatuta dagoen bakarra da Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsulari Gazteen Xapelgoa, uztailean jokatu baitzen. Besteak hilabete honetan izango dira, urrian, eta gero izango da Euskal Herrikoa: azaroaren 14an, Abadiñon.

Poto-Finixa



PANDEMIA -1,5M GARAIKO -1,5M BILERA
 Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Zatuz bertso-eskolara!

Zabalik dago hainbat bertso-eskolan izena emateko epea. Bertsozalea bazara, hitzarekin jolastu eta lagunarte ederra topatu nahi baduzu, aukera ezin hobea da bertso-eskola. Joan inguruan duzun eskolara eta informa zaitez; eta, bestela, jarri zure lurraldeko Bertsozale Elkartarekin harremanetan eta hurbilen daukazu bertso-eskola zein den esango dizute. Animatu eta eman izena bertso-eskolan!



Eskuragarri www.lanku.eus atarian

PUBLIZITATEA